

## Ramon Serrasen argazki erakusketea Igorreko Kultur Etxean

16. orrialdea

## Binakako Txapela irabazi dabe Danel Elezkanok eta Beñat Rezustak

Aprilaren 7an jokatu zan finala eta Elezkanok II.ak eta Rezustak 22-19 irabazi eutseen Iribarria eta Zabaletari Bilboko Bizkaia frontoian. Gero Diman ospatu eben garaipena. Dimoztarrak pankarta bategaz egon ziran zain, eta txapligu eta bengalakaz egin eutseen harrerea txapeldunai. 15. orrialdea



## Gaizka Barahona Europako Mushing Txapelketara

15. orrialdea

TOKIKOM

# begitu

arratia ubide zeberio

# 316

2019ko aprilaren 16a  
hamabostekaria  
www.begitu.org

# Euskerearen alde Korrika Arratian

Arratia, Ubide eta Zeberioako Udal, alkarte, partidu eta norbanakoak parte hartu eben 21. Korrikan. Zeberioakoak aprilaren 10ean eta Arratiakoak 13an, euskerearen aldeko konpromisoa erakutsi eben jai giroan.

**P**artaidetza horren lekuko dira orrialdeotara dakarguzan AEK-k eta Geuria aldizkariak ateratako argazkiak. Asko diran arren bat falta da, Zerturena. Izan be, BEGITU ateraten dauan Zertu Kultur Elkar-teak eta Arantzarte jantza taldeak, Gezalako bidekurutzearen osteko 2364 kilometroa egin eben eta EALEk 2365 kilometroaren lehen erdia. Gezalan furgoneteak okerreko bidea hartu eban eta eurekaz jarraitzaile gehienak. Lekukoak baina, bere bidea egin eban, ilunpetan eta gitxi batzuen laguntzeagaz. Akaso, euskerearen bidean be, bizitzan legez, gauzak ilun dagozanean gitxi jarraituten dabelako bidetik. Danak egin eben bat Igorreko sarreran. Eguneko pasadizutxo bat baino ez zan izan. Beste askoren artean. **Erdiko orrialdeak eta atzena**



Igorreko jubiladuen alkarteak egindako kilometroa.

## LEMOA

### Gazte Topagunea jentetsua espero da Jarrairen 40. urteurrenean

Lemoako herriak, aprilaren 19, 20, 21 eta 22an, bere populazioa ia hirukoztea espero da, kontuan izanda saldu diran hiru egunetako eta egun baterako bonoak. Egun horreetan, gazteak, ekitaldi politikoak, formakuntza tailerrak, ikuskizunak, berbaldiak eta kontzertuak izango ditue. Akanpetako lekua egongo da Lemoan lo egin gura dabenentzat eta Bizkaibuseko ohiko zerbitzuaz gainera, gauero autobus bat ibiliko da Arratiako herrietatik. **7. orrialdea**



## IGORRE

### Urrezko Baloia emon deusie Naia Totorika Arratiako jokalaria

Cantera Deportivak neska bateri emondako lehenengo Urrezko Baloia izan da eta Espainiako Bigarren Mailan eta Euskal Ligan Bizkaiko jokalaririk onena legez errekonoziduten dau.

Ligea amaituteko partidu biren faltan, Arratia Euskal Ligatik Espainiako Bigarren Mailara igoteko ahaleginetan dabil. Martiaren 31n, bere sorreratik 50 urte pasau diranean, Arratiako nesken futbolearen aurrerari izan zan Soberano taldeari omenaldia egin eutseen. **14. orrialdea**



## ARRATIA

### Mugak zabaltzeko eskatzeko bideoklipa

Maiatzaren 5ean, Durangon, politika migratzaileak aldatu eta Europako hauteskundeetan muturreko eskoiaoren gorakadea gelditzeko egingo dan Herrien Besarkada ekimenen ahalik jente gehien parte hartzean animetako kanpainearen barruan, bideoklip bat grabau dau Artean Ongi Etorri Errefuxiatuak Plataformeak.

Tiken Jah Fakolyren *Ouvrez les frontières* kantuen Vendetta taldeak egindako bersinoa da. Lau kantari afrikarrek eta Zeberioko Irrekoñozibles taldeko Claudia Santosek egin eben bersino hori eta Arteako Herriko Bentan grabau ziran irudiak Unax Blancoren zuzendaritzapean.

Bideoklipa laster egongo da ikusgai Youtuben. **5. orrialdea**



# Literatura txokoa

## BACK TO LEIZARRAGA

Aitortza batez hasiko dau liburua Kepa Altonagak: luzaroan ez eban Xabier Amuriza gogoko izan. Etxanoztarrak aspaldi egin ebazan adierazpen batzuk izan ziran ikusiez ino edo txarto-ulertu haren sorburua: Amurizak 1982an Bilboko Hoja del Lunes egunkarian adierazo eban ez ebalatu gustuko idaztea, eta oindino gitxiago idaztea. Baina aitaturako pasarte eta berbok atxakia baino ez dira ondokik Amurizari berea aitortzeko.

Euskal prosa zientifikoaren argi-ilunez egiten dau berba Altonagak, Amurizak aurretiaz hainbatetan egin izan dauan legez. Liburuan zehar murgildu ahala

konturatuko gara arazo eta ga-bezia beretsuak ondorioztatuko dituela bi-biak.

Ba ete dau zentzurik hizkuntza txiki eta ia agoniko batek neologismoz beteriko prosa zientifikoa bultzatzea? *Konbergentzia* ala *bat-etortzea*? *Fusioa* ala *bat-egitea*? *Antsietatea* ala *barne-herstura*? Biologiaren berba egitean, *herentzia* kontzeptuaren ordain dogu *ondoretasuna*? *Eboluzionatu* alde batera itxi, eta *sortu* erabili? Seguru gagoz bene-benetan horreek dirala euskerazko ordain egokiak?

Auzia, dana dala, ez da atzo goizekoa. Inguruko hizkuntzetatik bereizteko beharrak tradizio luzea dauka gurean; seguruenik,

desagertzeko bildurrak hauspotuta.

Erlatibozko esaldien auziari be-pasinoz helduko deutso Altonagak. Zein-erlatibo edo erlatibo anaforikoak. Euskal prosalari garaikideak atzen hamarkadotan sustatu daben erlatibo-fobia. Posible ete da erlatibozko zenbait egitura bazter itxita zuztarrezko eta ganorazko testu zientifikoak idaztea?

Esandako guztiak eta beste hamaika. Adibide, azalpen eta argudio argigarriz lagunduak. Edozein euskaldunek ato baten eta gustura irakurriko dauan liburua. Eta inor epel itxiko ez dauana, aspaldiko esana da-eta euskaldun guztiok filologo txiki eta marmarti bat daroagula gure barruan.

**Mikel Urkixo**



**Kepa Altonaga**

**Back to Leizarraga**

**Pamiela argitaletxea**

**128 orrialde**

### TELEFONO INTERESGARRIAK

#### Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
SOS DEIAK 112

#### Guardiako Farmaziak

**09:00etatik 22:00etara**

**Aprilaren 15etik 21era**

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g  
Tel.: 94 631 39 50 eta 649 686 305

**22:00etatik 09:00etara**

Iruarrizaga. Amorebieta-Etxano.

**Aprilaren 22tik 28ra**

N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1  
Tel.: 94 631 30 18 eta 688 732 863

**22:00etatik 09:00etara**

Gutierrez. Amorebieta-Etxano.

**Aprilaren 29tik maiatzaren 5era**

Rodriguez Martinez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27  
Tel.: 94 673 61 09 eta 688 635 154

**22:00etatik 09:00etara**

Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

#### Urte osoan

**22:00etatik 09:00etara**

Gometza Ana. Francisco Kortabarria 2. Basauri.

#### Medikuak

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 11

**Areatza:** 94 631 71 52

**Bedia:** 94 631 34 13

**Dima:** 94 680 19 74

**Igorre:** 94 600 74 63

**Lemoa:** 94 631 31 16

**Ubide:** 945 38 50 14

**Zeanuri:** 94 673 91 49

**Zeberio:** 94 648 20 79

#### Udaletxeak

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 05

**Areatza:** 94 673 90 10

**Bedia:** 94 631 42 00

**Dima:** 94 631 57 25

**Igorre:** 94 631 53 84

**Lemoa:** 94 631 30 05

**Ubide:** 945 45 03 22

**Zeanuri:** 94 673 91 46

**Zeberio:** 94 648 10 79

#### Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

#### Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

**Parketxea** 94 673 92 79

**Igorreko Kultur Etxea**

94 673 62 51

#### Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

**Euskotren** 902 543 210

**Areatzako Notarioritza**

94 673 92 26

#### Bizkaibus 94 612 55 55

**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri**

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

**Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik

22:30etara 30 minuturo, azkenengoa

22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango**

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30

minuturo.

**Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo**

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

**Otxandiotik urtekerak:** Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

**Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide**

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

**Zeanuri-Lemoa-Bilbo**

**(Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Bilbo-Lemoa-Zeanuri**

**(Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Zeberio-Ugao**

Lanegun eta zapatuetan:

Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10\*, 11:00, 11:45\*,

14:10, 15:00, 16:10, 18:30\*, 20:20.

\* Basauriraino (Ariz) heltzean da.

Gainontzekoak Ugaoraino. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

**Ugao-Zeberio**

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30,

19:40.

Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

**Artea-Zeberio-Ugao**

Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00\*, 14:00,

16:00.

\* Igorretik urtetan da bost minutu lehenago.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Ugao-Zeberio-Artea**

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 7:20\*, 13:05, 15:30, 20:40.

Basauritik (Ariz): 12:45.

\* Igorreko Instituturaino heltzean dira.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Ermitabarri-Arrigorriaga**

Jaiegunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

**Arrigorriaga-Ermitabarri**

Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

#### La Union 94 427 11 11

##### Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan

dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

##### Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandioakorik ez dago.

**Argitaratzailea:** ZERTU Kultur Elkartea.

**Helbidea:** Herreriko Plaza 24, 48142 Artea.

**Telefonoa:** 94 631 73 14.

**Helbide elektronikoa:** [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

**Webgunea:** [www.begitu.org](http://www.begitu.org)

**Zuzendaria:** Iñigo Iruarrizaga.

**Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

**Erredakzino taldea:** Jon Urutxurtu.

**Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga.

**Publizitatea:** Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

**Banaketa:** Leire Inuntziaga eta Laiene Pagazaurtundua (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Unai Agorreta eta Xabier Beitia (Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Oriol Fernandez eta Iker Perez (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Berbizkunde Arroita (Zeberio).

**Tiradea:** 7.300 ale.

**Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.



**Argitaratzailea:** ZERTU Kultur Elkartea.  
**Helbidea:** Herreriko Plaza 24, 48142 Artea.  
**Telefonoa:** 94 631 73 14.  
**Helbide elektronikoa:** [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)  
**Webgunea:** [www.begitu.org](http://www.begitu.org)  
**Zuzendaria:** Iñigo Iruarrizaga.  
**Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.  
**Erredakzino taldea:** Jon Urutxurtu.  
**Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga.  
**Publizitatea:** Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.  
**Banaketa:** Leire Inuntziaga eta Laiene Pagazaurtundua (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Unai Agorreta eta Xabier Beitia (Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Oriol Fernandez eta Iker Perez (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Berbizkunde Arroita (Zeberio).  
**Tiradea:** 7.300 ale.  
**Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.

### Babesleak:



Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



## ZEURE BERBEA

### Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskeronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratuteko derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea  
BEGITU aldizkaria  
Herriko Plaza 24  
48142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:  
[begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu behar dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Mika edo pikatza



Luma baltzak eta zuriak eta buztan luzea daukazan txori hau izentatzeko, Arratian hainbat berba jaso doguz: mika/mike, mikapinto, mingor (Diman eta Igorren), pikatza (piketzea ahoskatuta) eta subetxori. Batuan be mika esaten da. Askok ugaritu da korbido edo bele antzeko hegazti hau gure ingurumarietan atzen urteotan, sano azkarra dalako. Kultura tradizionalan uste izan da, hazia eriteko sasoian eta, ez zala onuragarria; horrexegaitik, lapurtxori izena be emon izan jako.

## ERETXIA

### Hil arte bizi...

Angel eta Maria Joseren istorioak guztiz hunkituzkoak dira. Batez be Angelenak, esklerosi anitzak jota atzen 30 urteak andrearen ondoan berau zaintzen emon dituan gizonarekin. Amaiera bortitza, pornografikoa ia: salaketa publiko bat egin, heriotzaren intimidadea kamaraz inguratuta bortxatzea hautatu, andrea zaindu daben esku biak bere heriotza eragitera behartu eta dueluaren lehen momentuak kalabozoan bahituta emon behar izatea... Sistemearen indarkeriarik eta deshumanizaziorik bortitzea ezetuten emoteko. Gaixotasun sendaezinen barruan, baleiteke neurodegeneratiboak gogorrenerakoak izatea, geldoak, urteetan zehar gaixoak euren gorputzean preso hartzean doazanak, barruko sena bere horretan mantenduz norbere ezgaitasunaren testigu mutu izateko, amaiera noz helduko zain... luze, bakardadean, eta euren zaintzaileen (sarritan bikotekidea) despersonalizazioaren "errua" irunsi beharrez.

Detalle txiki asko agertzen dira La Sextak grabatutako suizidio lagunduaren irudi horreetan baina bat argia: Angelek bihotzagaz begiratzen eban bere andrea eta egindakoa maitasun ariketa maiuskulua da, Maitasun agâpea: maite dozun personearen interesak eta nahiak zureen gainetik ipintea.

Personen sorrereagaz eta amaieagaz daukaguzan osasun "aferak" (abortua eta eutanasia) sektore batzuetan sortu arazoten daben "polemika" zantzuaz nekatuta nago... Denpora luzez jasotako adoktrinamentu katolikoaren islada zala pentsau izan dot, bizitzaren sakralizazioa hazur muineraino errotuta itxi deuskuelako... Baina denporeagaz, heriotzak ikusi ahala gauza bategaz ohartu naz... momentua helduterakoan zeinu batekoak edo besteok bardin antzera erreakzionetan dogula: ezezagunari, sufrimentuari eta bakardadeari bildurrez.



### ITSASO BENGOETXEA

Medikua

Badira hamar negu luze Espainiako CISak eutanasiaren inguruko azken galdeketea egin ebanetik, 10 negu eta Angel eta Mari Jose asko... Herritarren %75 batek eutanasia legezatzaren alde (%60 baietzko biribila eta %15 baietz uste dot) erantzun ebanetik... eta egoera bardinean jarraituten dogu. *Tempus fugit*. Medikuoak sedazioaren aterkipean bizitzaren amaieari zeozelango duintasuna emoten saiatu gara, baina pazientearentzako kalbario mendiak besteok aldatza daukan *via crucis* sanitario bat ibili ostean heltzean da gehienetan. Politikariak eztabaida manikeistetan murgiltzen dira bitartean: zaintza aringarriak behar dirala, nagusiak "gaintik kentzeako" erreminta izango dala eutanasia... edozein atxaki honen guztia atzean dagoan eztabaideari aurre ez egiteko: bakotzak daukagun ebazteko eskubidearena.

Heriotza hurreratuteraoan egia da, sufrimentua ekiditen daben zaintza aringarriak emoteagaz askotan nahikoa dala; egia da, osasun sistemearen barruan holango zaintzak eskasak dirala eta egia biribilagoa oindino gizarte zerbitzuak dependentzia funtzionala daukien gaixoak artatzeko dituen medioak hutsaren hurrengoak dirala, baina administrazio desbardinak etxeko lanak egin ez izanak ezin dau eutanasiaren legea gehiago atzeratu. Maribel Tellaetxe, Inmaculada Echevarria, Ramon Sampedro... horreek guztiak eztabaidarako hauspoak izan ziran, Angel eta Maria Josek lortutako eragina harago joatea espero dot. Joko politikorako gai mediatikoa bihurtu da, kanpainen aurreko atetik sartuz.

Kolektiboaren nahien gainetik, familiaren nahiaren gainetik banakakoak gagozala deritxat gai honetan, gure ebatziaz errespetua, eta horretarako ezinbestekoa da holan gura dabenak, eskubide hori klandestinidatedetik kanpo, medioetatik kanpo, etxean, intimidatean eta osasun sistemearen babesagaz gauzatu ahal izatea, berandu barik barriz. Esperoan dagoanari bidea luze joako eta!

www.korrika.eus

21. korrika  
Eskerrik asko  
KORRIKAn parte  
hartu duzuen  
eragile guztioi!!

Arratiako aek Klika



## LUMATUTEN



## ALASNE ARTETXE

## Oingoan berba txikiak garaile suertauko diralakoan nago

Azken hilabeteotan "gauza handiez" egiten deuskue berba, eta hauteskunde gerizpea (gerizpe baltz-baltza) gaineratu jakunetik oindino askoz be gehiago.

Etorkizun hurbilaz egiten ei dabe berba, ekonomiaz, konstituzinoaz, aberriaz, erlijinoaz, ideologiaz...

Berba handi-handiak dira horreek niretzat, berba erraldoiak dira horreek nire buru txikirako, gure unibertso nimiñorako.

Berba egitea garrantzitsua da, jakina; ez da makalagoa, oster, entzuten jakitea.

Zenbat aldiz kurutzatu ete gara herrian zehar, zu itsu, ni itsu, ni artega, zu artega eta ez gara, ez zu, ez ni... herriko biztanleen "gauza txikien arduraz" berba egiteko gai izan, eta ez gara, ez ni, ez zu... gure

herrirako sano ona dan proiektuari oneretia emoteko gai izan. Ideologiak (=partiduak) ez ei dau holangorik baimentzen eta.

Herritarra (ez uritarra) nazan aldetik holangoetan sentimentu latzak inguratzen nau. Ezinegona, tristurea, tensioa, penea, mina (min sakona, maiuskulaz idatzitako mina) barneratzen jataz.

Hain gatxa ete da akordioetara heltzea herriaren mesedean?

Berba "handiak" txarlatanentzat dira, duintasun politiko eta etiko bako agintari horreentzat, argudio bakoentzat, edozer sinesten daben "inozoentzat" (aspaldiko esaera erromatarra etorri jata burura *Panem et circenses*)... Itxurea helburutzat daben horreentzat, baina funtsezko gitxi.

Niri eta zuri itxi gauza "txikiak", berba "txikiak". Berba txikiak diralako zu eta ni herriaren mesedean lotuko gaituanak edota lotu beharko gaituanak.

Esperantzari zirrikitutxo bat itxiko deusatz oingoan. Zu eta ni. Ni eta zu. Taldea. Hurrengo hauteskunde ostan. Herriaren eta.

## ZERTZEAN



47, 601, 117.600

## ARITZ ZUBIATE

Koordenadak izan zitezkeen, baina ez. 47 euskal herritar epaituko dituzte. 601 urtetako kartzela zigorrak eskatzen dizkiete. 117.600 euro isunetan. Makroepaiketa berria dator, irailean, 16an hasiko da, Madrilan, Entzutegi Nazionalean. Euskal preso eskubideen inguruan egindako lana da delituaren funtsa: Herrira-n ibilitakoak dira akusatatuak, euskal preso abokatu lanetan ibilitakoak, osasun-arreta ematen ibili direnak, kolektiboaren bitartekari taldekoak.

Euskal Presoen eskubideen alde egindako lana akusatuen aulkian eseri araziko du Espainiak. "Dena da ETA" indarrean oraindik erakundea desegin eta urte eta erdira. Bidegabekeria honen aurrean, bide bakarra dago: Oinarrizko giza eskubideen errespetua eskatzea. Demokrazia, justizia, askatasunaren alde indarrak biltzea.

Bitartean, askatu barik jarraitzen du euskal preso korapiloak, 253 daude egun Espainia eta Frantziako estatuko kartzelatan, gutxi batzuk baino ez Euskal Herrian. Honen aurrean, argiak dira gehiengo sozial eta sindikalaren eskariak: kalean egon behar dute 70 urtetik gorako presoek, kalean egon behar dute gaixotasun larriak dituztenek, bigarren gradua lortu behar dute (egun %90etik gora dago lehengoan) eta sakabanaketak amaitu egin behar du, Euskal Herritik, etetik gertu egon behar dute. Bidea egiten ari gara. Urtarileko olatua, Aitzol Gogorzaren askatasunaren alde Ooreretan egindakoa, 10 sindikaturen hileroko mobilizazioak Bilbon, gaixorik dauden preso aldeko zubietako apirileko ekimena, Igoerreko azken barikuetako kontzentrazio xumea... Ari gara. Jarraituko dugu. Indarrak batu, sareak josi eta kalera atera. Bada garaia, orain presoak.

\* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eremuan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITU argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguz argitaratzeko baldintzak [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidean.

## BEGI TXINDORRA

21. Korrika martxan dago eta Igorrek bere omenaldia egin gura izan deutso hainbat arlotan aitzindaria izan zan Txillardegiri. Izan be, euskaltzaletasuna ulertuteko modu barri bat ekarri eban, euskerearen batasunaren eragile eta bultzatzaile nagusietako bat izan zan, euskerazko kultura moderno eta garaikidearen oinarriak jarri eban eta soziolinguistikan ikuspegi barrizalea txertatu be egin eban. Politikan jardun eban gaztetatik, eta euskerearen aldeko eskubideen eragile garrantzitsua izan zan, halan holan Euskal Herrian Euskaraz taldeagaz.

Horregaitik, Txillardegiren garrantziak ez aitzuteko eta gure txikiak eta gazteak bere beharra buruan izateko, Igorreko Euskera Planak herrian zehar hainbat pankarta ipini dauz bere argazkiagaz eta berak esandako esaldiak. Gainera, Txillardegiren familiari ekimenaren barri emongo jako gutun baten bidez.

"Elebitasun orekatua jendea engainatzeko trikimailua da" edo "Euskarak egin du Euskal Herria: euskarak ez bestek. Euskarak bizi du Euskal Herria. Euskarak mugatzen du. Eta Euskal Herria piz bada, euskarak piztuko du" dira pankartetan ledu daitezkean esaldi bi.

**Igorreko Euskera Plana**



**Gorosti** Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa  
LORAZAINTZA  
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
gorosti@gorostiscsl.com

**agoa** Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika  
hagin klinika  
Marina Urigoitia Aldekoa  
Ondarrabia  
Bidebarri 1. behea  
48140 Igoerre-Bizkaia  
T. 94 631 50 39  
Kalejatu Zirkulari 101  
R.P.S. 31/06

**J.A. IZQUIERDO**  
PINTURA LANAK  
MOKETA · SINTASOLA · PAPEREA  
Elexaola, 33 D - 1º · 48140 IGORRE (Bizkaia)  
Tel. 94 631 54 82 · 506 884 018

Igorreko garrik sozial!  
**Troka**  
Lanabizari Agure II



## ARRATIA

# Enpresen kompetentzia mapea irudikatu dabe

### Erredakzioa

Aprilaren 5ean, Errota Fundazioak deituta, Elkarlanean 2018 proiektuan parte hartu daberen Arratiako enpresak alkartu ziran egitasmoaren ondorioak ezetu eta etorkizuneko erronkak adostuteko.

Igazko lanaren ondorioz, Arratiako enpresen kompetentzia mapea irudikatu dabe, eta lau balio kate identifikatu ditue: metalmekanikoa, automozinoa, elektriko/elektronikoa eta eraikuntzea. Eskualdean 200 enpresa inguru dagoz eta eurretatik 150 sartzean dira lau kate honeetako baten.

### Arratiako enpresen ezaugarriak

Arratiako enpresa gehienak txikiak dira, 10 behargin baino gutxiago ditue eta eskualdean egiten dabe behar. Gehienetan barrikuntza maila bajua dala ondorioztatu dabe diagnostikoa egin dabenak.

Enpresa handiak automozino eta sektore elektrikoan jarduten

dabe batez be, eta txikiak bezero edo-eta hornitzaile hartu-emoak ditue. Gehienetan zerbitzu eta prozesuak azpikontratzen deutseez. Mekanizazioa, gal-daragintzea, tresneria fabrikatea eta tratamendu termikoak dira azpikontratetan diran zerbitzu edo prozesu garrantzitsuenak.

Arratiako enpresak erabilten daberen lehengai garrantzitsuena metala da, baina plastikoa eta kautxua transformetan daberen enpresak be badagoz.

### Hiru erronka

Aurrera begirako hiru erronka identifikatu ditue Arratiako enpresak. Euren eretxian beharrezko ditue bezeroen dibersifikazioa, personeren kudeaketa eraginkorra eta 4.0 industria bidez, produktzio prozesuen eraginkortasuna hobetutea.

Proiektuan Arratiako 59 enpresak eta Bizkaiko Foru Aldundiak hartu dabe parte. Azaro Fundazioaren teknikarien laguntasuna izan dabe.

## ARRATIA

# Ouvrez les frontières kantuaren bideoklipa grabatu dabe Artean

Lau musikari afrikarrek eta Irrekoñozibles taldeko Claudia Santos zeberioztarrak ipini ertsien ahotsa Vendetta taldekoak sortutako bersinoari.

### Erredakzioa

Grabazio estudioa Artean egon zan, Juanxu Domenech musikariaren ardurapean. Irudiak be bertan grabatu ziran, Herriko Bentan hain zuzen be, Unax Blancoren zuzendaritzapean. Aktore lanean, Artea eta inguruko herrietako jentea ibili zan.

### Mugaren beste aldetik etorritakoen jaia

Bideoklipetan taberna baten musika talde bat jotzen dago eta jentea jantzen; mundu zabaletik etorritako jentea. Arteara etorritakoak emoten dabe jai giro hori. "Ipini genduan musika talde bat play-back-a egiten, musika talde bat izango balitz bez. Atzenengo momentuan, Unax Blancok



bideoklipari narratiba apur bat emoteko, proposatu eban ume bat etortea, tabernara hurreratzeta eta begiratzeta ateko kristaletik giroa. Orduan umea sartzean da tabernan eta hor hasten da bideoklipa" azaldu deutso be-

gitori Juan Totorika Ongi Etorri Errefuxituak plataformako kideak. Oin remasterizetan dabilz sare sozialetan zabalduteko.

Bideoklipak, maiatzaren 5eko Herrien Besarkada ekimena bul-tzatzeke helburua dauka.

## ARRATIA

# Aprilean eta maiatzean garbigune mobikorrak egongo dira Arratian

### Erredakzioa

Garbiker apirilaren 15ean hasi zan garbigune mobikorrak ipinten Aratzan eta Ubiden. Hor egongo dira hilaren 17ra arte. Aprila eta maiatzean zehar Arratiako beste udale-

rrietan be ipiniko ditu garbiguneok.

Bertan, etxeko elektrotresna txikiak, sukaldeko tresnak, orioa (ontzi zarratuetan), sakeleko telefonoak, kableak, pinturak eta disolbatzaileak, aerosolak, xurgatzaileak, tonerrak, tinta kartutxoak,

metal eta plastikozko kapsulak, pilak, CDak, DVDak eta kaseteak eta erradiografiak botatzeko.

### Herriak

Garbigune mobikorrak Areatza eta Ubiden apirilaren 15etik 17ra dagoz; Arantzazun eta Artean, hilaren 23tik 26ra egongo dira; Igo-rreren eta Diman, apirilaren 29tik maiatzaren 3ra; Zeanurin, maiatzaren 6tik 10era, eta Bedian eta Lemoan, maiatzaren 20tik 24ra.



# ALKIZABAL

ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburu Poligonoa, 19  
Amorebieta - Lemoa errep.  
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06  
Fax. 946 31 20 26  
alkizabal@alkizabal.net

www.alkizabal.net

Basoak garbitzeko makineria

ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKIRUA ETA SALMENTA



## LEMOA

**Haur Txoko barria erabilten hasi dira guraso eta umeak****Martian zabaldu ebazan atek Haur Txokoak.****Erredakzioa**

Martiaren amaieran zabaldu ebazan atek Haur Txoko barriak, 0 eta 3 urte bitarteko umeak eta euren zaintzaileak espazio argitsu eta babestua eskainiz. Ludoteka ondoan dago eta momentuz, ludotekearen ordutegi berean erabili daiteke, baina ordutegi horretatik kanpo be espazio horrek beste gauza askotarako emoten dauala jokoak uste dau Saioa Elejabarrieta Lemoako alkateak.

Haur Txokoa Kultur prozesutik sortutako proiektua da. Kultur prozesuan Lemoako espazio publikoaren erabilerak birplanteau zi-

ran eta hortik urten zan proiektua. Ludotekea, Liburutegia eta Informatika gelako eraikinaren aterpea zarratuta ebatzi zan espazio hau sortzeako. Egitura egurrez egin da eta beiraz zarratu. Jolasetarako materiala be egurrezkoa da.

**Haur Txokoa eta Ludotekea**

Haur Txoko zerbitzua martxan dala bospasei urte izango dira baina eraikin eta espazioak ez zirala egokiak dino alkateak. Haur Txokoa 0-3 urte bitarteko umeentzat da eta Ludotekea 3 urtetik gorakoentzat. Ludotekan begiraleak eta programazio bat dago, Haur Txokoa barriz, espazio librea da.

## ARRATIA

**Iparrorratza eta mapea jabekuntza garatzeko****Erredakzioa**

Arratiako Andren Jabekuntza Eskolako hurrengo ikastaroan, mendian orientatzen ikasiko dabe partaideak. Ikastaroak saio bi daukaz; apirilaren 27an, zapatuan, 10:00etatik 13:00etara landuko da alde teorikoa Arantzazuko Kultur Gunean, eta hurrengo egunean, domekan, 09:00etan mendian egun pasa eginaz praktikoak. Irakaslea Laura Ruiz mendi teknikaria izango da eta izena emoteko atzen eguna apirilaren 20a da.

Tailerraren helburu nagusia, autonomia garatea eta bildurrak gaintzea da. Mendian orientatzen ikasiko dabe partaideak:

iparrorratzen erabilera, mapak irakurten eta abar, mendian lasai eta bildur barik ibilteko.



## ZEBERIO

**Udalak 600 oihalezko boltsa banandu ditu****Erredakzioa**

Udalak oihalezko 600 boltsa banandu ditu etxeetan, plastikoen erabilera murrizteko. Izan be, ingurumen jasangarritasunaren aldeko "konpromiso irmoa" adierazo gura dau Zeberio Udalak.

Ohiturak aldatu eta arazoari konponbiderik emon ezean, 2050ean arrain baino plastiko gehiago egongo dirala itsasoan jakinarazo dabe adituak. Plastiko horreen zati handia erabilera bakarrek boltsak dira. Geuria agerkariak emondako datuen arabera, urtean 180 boltsa erabilten ditu persona bakoitxak; 12 minutuz erabilten dau, eta gero zakarrontzira doa. Plastiko horren %5 bakarrik birziklatzen da, %40ak zabortege edo ozeanotan amaitzen dau eta %45 erre egiten da.

**Lehenko ohiturak berreskuratzen**

Gaur plastiko barik biziteak gatxa

emoten badau be, ez da oso atzera jo behar askoz plastiko gitxiagotz zelan bizi ginan gogoratuteko. Izan be, atzenengo hamar urteotan, gizakiaren historia osoan baino plastiko gehiago produzidu da eta 2020an, 1980an baino %900 gehiago ekoiztuko da, Greenpeace-ren

datuen arabera.

Zeberio Udalak, inbasio honen aurreko ohituretara bueltatu gura dau eta horregaitik banandu ditu erabilera askoko oihalezko boltsak. "Zeberio Udalak konpromisoa agertu gura dau ingurumenaren jasangarritasunagaz, eta oihal boltsa honeen banaketeak ardurak kolektibo horri dei egin gura deuto", azaldu dau Karlos Idirin alkateak. "Guztion ardura da plastikozko boltsak non amaituko daben pentsetea, baita honeek gure ekosisteman sortu daiekizan arazoak zeintzuk diran be".



## ZEANURI

**3D diseinuzko ikastaroa langileentzat Zulaibarren****Erredakzioa**

Zulaibar Arratiako Lanbide Ikastegiak, *Fabrikazino mekanikoko produktuen irudikatze grafikoa (3D diseinua)* 40 orduko ikastaroa antolatu dau. Ikastaroa maiatzan izango da eta diruz lagunduta dago.

Eskolak, 15:30etik 19:30era izango dira astelehen, martitzen, eguazten eta eguenetan, maiatzaren 6tik 22ra. Izena, ikastetxearen webgunean edo 94 673 91 16 telefonoan edo [jonzabala@zulaibar.org](mailto:jonzabala@zulaibar.org) helbidean emon daiteke.

**Lanerako prestakuntza**

Ez da izango hau Zulaibarrek aurtun emongo dauan langileen lanerako prestakuntza hobetu-

teko ikastaro bakarra. Urrietan eta abenduan be langileentzako beste ikastaro espezializatu bi aurreikusita dagoz.



mediku naturista Zamakoa, 9 - 48960 Galdakao  
argaltzeko terapia 94 600 21 12 - 94 600 87 56  
kosmetika naturala L. Agirre, 9 - 48140 Igorre  
elikagai biologikoak 94 631 14 39  
zelakoentzari elkagaisk  
esteziziena

**www.begitu.org**

publicidadea  
94 631 73 14 eta 649 979 115

**Gugaz harremanetan ipinteko**  
94 631 73 14 eta 649 979 112  
[begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

**DIZIPLINA ANITZEKO ZENTRUA**

- Psikologia
- Logopedia
- Fisioterapia
- Ulermen tailerra
- Jarrera arazoak
- Emozioen tailerra
- Psikomotrizitateak
- Adimen emozionala
- Trebetasun sozialak
- Estimulazio goiztiarra
- Eta askoz gehiago...

652 702 650 / 672 481 370  
Lehendakari Agirre 4 · Igorre  
[maite.eileke@gmail.com](mailto:maite.eileke@gmail.com)



## LEMOA

# Formakuntza politikoa eta aisialdirako eskaintza zabala Lemoako Gazte Topagunean

Egitarau zabal eta esanguratsua izango dau Gazte Topaguneak. Ernai eta Aitzina! ezker abertzaleko gazte erakundeak antolatu dabe Lemoan aprilaren 19tik 22ra artean.

### Erredakzioa

Zapatua, hilak 20, egun berezia izango da. Alde batetik, "Bulkada" eguna izentau dabe eta 40 urteotan zehar Gazte Antolakundeagaz bat egin dabenakaz batzeako "esfortzu berezia" egin dabe antolatzaileak. Eta bestetik, ekitaldi nagusia be zapatuan izango da Gune Handian.

Eskaintza politikoaz gainera, aisialdi eskaintza zabala be egongo da. Hor aitatu behar dira Gazte Sortzaileen Plaza eta kontzertuak. Beste batzuen artean, Su ta Garrek, Gatibuk, Eskean Kristök, Fermin Muguruza eta Des-kontrolak, Komak edo Ana Tijoux-ek animauko dabez Gazte Topaguneko gauak.

Gazte Topaguneko kantua, (H) ari gara Eskean Kristö Arratiako taldeak sortu dau, Euskal Herriko beste musikari batzuekz batera eta Igorreko Izaskun Urbaneta Vinagre de Moderna taldekoak kantetan dau.

Bizkaibuseko ohiko zerbitzuaz gainera, gauero autobus bat ibiliko da Arratiako herrietatik bueltaka, tren geraleku ondokit urtenda. 03:00etan hasiko da zerbitzua eta 05:00etan amaitu.

### Guneak

Ekitaldiak, tailerrak, ikuskizunak, berbaldiak eta kontzertuak gune desbardinetan izango dira. Eskolan, Gaztetxe eta Gaztetxeo parkinean, Harrobi futbol zelaiaren parean, Arraibin eta herrian zehar egingo dira ekintzak.

Barikuan, aprilak 19, eguerdiko 12:00etan emongo jakie hasikerea jardunaldia. Txaranga batez lagunduta, gazteak akanpalekutik, eskolan dagoan Akeita-Naiz gunera joango dira eta bertan harrerea egingo deutsee. Hurrengo egunetan 09:00etan zabalduko da gune hau. Bertan, kafetegia eta Naiz irratia egongo dira.

Lan eta hausnarketa politikorako tailer gehienak eskoletan izango dira. Hiru ardatz jorratuko dira, eta "internazionalismoak hartuko dau pisu berezia. Kanpotik hainbat delegaritzat etorriko dira berbaldiak emoten. Kurdistanetik, Txiletik, Kataluniatik, Andaluziatik, eta Afrikako herrialde batzuetatik be etortzekoak dira" azaldu deutso BEGITURI Paul Laka

antolakuntzakoak.

Gazte Sortzaileen Plaza Gaztetxean eta Gaztetxe ondoko parkinean izango da. Antolakuntza hartu-emonetan ipini zan gazte sortzaileak eta espazio "esanguratsua" bat emon gura izan deutse. Izan be, euren ustetan "askatasun bulkada barriak kultu-

ratik be etorriko dira".

Guneetatik kanpo herrian be egingo ditue hainbat jarduera, Lemoatxeko ibilbidea, goitibehera jeitsiera eta Bola Joko Txapelketea, berbarako.

Igorreko Axular Herriko Tabernan salgai dagoz bonoak zein eguneko sarrerak be.

### KONTZERTU EGITARAUA

#### Aprilak 19, barikua

12:30ean, Broken Brothers Brass Band Gazte Sortzaileen Plazan.  
15:30ean, Wood Strings Gazte Sortzaileen Plazan.  
18:00etan, Rude Pride, Arcada Social, Governors eta Olatz Salvador duo Arraibin.  
20:00etan, Zeinke, Desorden, Vinagre de Moderna eta Tooth Gazte Sortzaileen Plazan.  
20:00etatik aurrera, Eskean Kristö, Gatibu, Su Ta gar, Hesian, Zoo eta Skarra Mucci gune handian.  
20:00etan, El\_Txef\_A eta Baltza ezker paretan.

#### Aprilak 20, zapatua

13:30ean, Rukula herrian zehar.  
13:30ean, Pintxada & Marianito Gazte Sortzaileen Plazan.  
16:00etan, Berinbau Gazte Sortzaileen Plazan.  
22:00etan, Akort, Eskabidean and the Black Birds Gazte Sortzaileen Plazan.  
22:00etan, Pikete lerroa, Des-kontrol, Banda Bassotti, Tremenda Jauria, Sociedad Alkoholika eta Bad Sound gune handian.  
DJ Bull, Mad Pompa DJ's, Hesian, La otra, La mare.

#### Aprilak 21, domekea

16:00etan, Euskal Dub Etxea Gazte Sortzaileen Plazan.  
18:00etan, Ira, La Basu eta lagunak, La Furia, Xabi Bandini eta Maiz Arraibin.  
20:00etan, Nizuri Ta Zuneri, Gazte Sortzaileen Plazan.  
Trigger Prototxelo, Laize MC, Gatom, Uki Selektah, Herbalist, DJ Gorkhita, Raperu.  
20:00etan, Rotten XIII, Tribade, Ana Tijoux, Kop eta Huntza gune handian.  
24:00etan, Koma gune handian.



## IGORRE

# Barrero atera dauz kontratazinora errokodromoa berreregiteko lanak Udalak

### Erredakzioa

Aurretik be atera ebazan kontratazinora oin dala urte bi erretako errokodromoa berreregiteko lanak, baina aurrekoan ez zan inor aurkeztu. Hori dala-eta, Udalak prezioak berrikusi dauz enpresakaz eta 40.000 euro gehiago ipini dauz oingo honetan. Lizitazioa 192.200 eurotan atera da. Kontratisten proposamenak aurkeztuteko atzen eguna aprilaren 29a da.

Boulderra kiskali zanean, kamarak erakutsi eben bertan gazte batzuk egozala eta euretako batek emon eutsala su. Bilboko Epaitegiak arduradunak 151.000 euro ordaintzera zigortu ebazan eta Udalak jaso dau dirua.

### Aparkalekua

Jubiladuen lokalaren atzeko aldean dagoan aparkaleku barria amaituta dago marrak pintau eta farolen faltan. "Egia da farolak atzeratu egin dirala" dino alkateak eta farolak heltzean diranean, zabalduko dabela dino. "Ez dogu gura izan argi barik zabaldutea".

Bitartean, Agirre Lehendakaria kaleko eta inguruko obrak jarraituten dabez: Astigarragako blokeen saneamentu konexinoa egiten dabiz eta Troka tabernaren atzeko umeentzako jolaslekurako lanak esleitura dagoz, berbarako.

## ARRATIA

# Kantu Bat Gara Hazparneko kantuzaleakaz Korrikan

### Erredakzioa

Aprilaren 7an, Arratiako Kantu bat gara taldekoak, Hazparnera joan ziran hango kantuzaleakaz batera, Korrikari eta euskereari babesa adierazoten. Herriko kaleetan eta AEK-k daukan tabernan kantau eben. Taldekoak giroa ezin hobea izan zala dinoe, kantuzale, euskalzale eta korrikalari asko batu ziran eta.



M. Jose zure arropa

94 631 90 08

**GALANTA**

Guk segiduten dogu

Agirre  
Lehendakaria 23  
48140 Igorre  
galanta@hotmail.es

www.facecook.com/galanta.lenceria



**KORRIKA 21**

# Arratiak klika egin eban

Amaiera bezperan pasau zan Korrika Arratiatik. Lemoa, Igorre, Dima, barriro Igorre, Arantzazu, Artea, Areatza eta Zeanuriko ibilbidean euskaltzale ugari batu jakozan jai giroan. Areatzan su artifizialakaz hartu eben euskerearen aldeko laserteketea. Leku guztietan, euskerearen alde eta emozino handiz jente ugari jarraitu eutsan euskerearen lekukoari.




Zeberioiko Udala.



Zeberioiko Austarri Kultur Elkarte.



Zeberioiko Gure Indarra jubiladuen alkarte.



Zeberioiko Iturripe Kultur Elkarte.



Txubelasu Guraso Elkarte eta Zeberioiko eskolea.



Amaieur.



Bediako Ezker Abertzalea.




Javi Burguete.



Cementos Lemonako LAB.



Ettxerat Elkarte.



Lemoako EH Bildu.



Lemoako Sortu.





Lemoako Ganzabal Mendi Taldea.



Manex.



Lemoako Durundi Barri Dantza Taldea.



Lemoako JB Eguzkitza Meabe ikastetxea.



Lemoako Udala.



Lemoako Karabie Gaztetxea.



Lemoako Harrobi Futbol Kluba.




Lemoako Esku Pilota Taldea.



Madrilgo diaspora.



Igorreko Esku Pelota Taldea.



Arratia Motor Taldea.



Arratia Futbol Taldea.





Igorreko EH Bildu



Arratiako EAJ-PNV.



Arantzate Dantza Taldea.



Igorreko EALE alkartea.




Igitie, Arratiako Baserritar Agroekologikoen Elkartea.



Igorreko Luis Iruarizaga Abesbatza.



Igorreko Udala.



BATZ S. Koop.



BATZ Araluce.



Dimako Andraizea.



Dimako Txumuluxueta Kultur eta Kirol Elkartea.



Dimako Txumuluxueta Pelota Kluba.



Dimako Gazte Barri Dantza Taldea.





Dimako Jentilzubi Kultur Elkartea.



Dimako Bertso Eskola.



Dimnasioa.



Dimako Zamakola 3. adineko Elkartea.



Dimako Abizarie Euskara Elkartea.



Dimako eskolea.



Dimako Guraso Elkartea.



Dimako Udala.



Dimetaleroak Kultur Elkartea.



Dimako Keixako Hegoak Parapente Taldea.



Dimako EH Bildu.





**Olazabal auzoa.**



**Indusi auzoa.**



**Artaun auzoa.**



**Oioloka.**



**Dimako Boulder Ilunbe Elkartea.**



**Igorreko eskolea eta Guraso Elkartea.**



**Arratia Institutua.**



**Arratia BHiko Tranbia Txiki Guraso Elkartea.**



**Arratiako AEKko ikasleak.**



**Igorreko Euskara Batzordea.**



**Arantzazuko Udala.**



**Errota Fundazioa.**



**Arteako EH Bildu.**



**Arantzazuko Arginatx Mendi Taldea.**





Arantzazuko Elizportaleko Gazte Asanblada.



Arteako Aldatuz Plataformea.



Arratiako Musika Eskolea.



Arteako jubiladuen alkartekoak egin eben Udalaren kilometroa.



Arteako eskolea eta Guraso Elkarte.



Arteako Herriko Bentak egin eban Arteako eskolearen eta Guraso Elkartearen kilometro erdia.



Gorosti Koop. E.



Aitor.



Areatzako Guraso Elkarte.




Areatzako Udala.

Argazkia: Zazu fotografia.



Areatzako Kultur eta Kirol Batzordea.



Areatzako Gorbeiaiko Gurutzeta Athletic Club Peña.



Areatzako EH Bildu.



Zaztarrak Asti Taldea.



Zeanuriko Txistulariak.



**FUTBOLA**

# Naia Totorika jokalaria jaso dau Cantera Deportivaren Urrezko Baloia

Agerkariak neska bateri emondako lehenengo Urrezko Baloia izan da. Sariak, Espainiako Bigarren Mailan eta Euskal Ligan, Bizkaiko jokalaririk onena legez errekonoziduten dau Arratiakoa.

**Erredakzinoa**

Bigarrena Athletic Bko Nerea Nevada eta hirugarrena, Eibar Futbol Klubeko Sheila Elorza izan ziran. Urteak izan arren, Cantera Deportivak mutilai Urrezko Baloia saria emoten eutsena, lehenengo aldia izan da neska be emon deusena.

Saria nori emon erdibana ebatzi eben Bigarren Mailako eta Euskal Ligako entrenatzaileen puntuazioak eta jenteak bialdutako sms-ak. Entrenatzaileak, punturik gehien 85,7 Igorrekoari emon eutsien eta sms-ak 14,4 puntu. Guztira, 100,1 puntu izan eban, Athletic-ekoari 17 puntu atereaz.

Totorika pozik agertu da, ez bakarrik "errekonozimentua danoi gustetan jakulako", taldearentzat be saria izan dalako. "Bigarren eta hirugarren geratu diranak izen handiko taldeetan jokatu dabe,

herri txiki bateko gure talde txikiarentzat izatea saria pozgarria da".

Totorika 14 urteaz hasi zan Arratia Futbol Taldean jokatu eta hau bere hamaseigarren urtea da. Lehenengo bi edo hiru urteetan atzelari hasi bazan be, gero beti zelai erdian jokatu izan dau eta jokatu dau. Naia Bilbaogaz batera, nesken taldeen koordinatzailea be bada.

**Mailaz igoteko aukera asko**

Sano denporaldi ona egiten dabil Arratia Euskal Ligan eta partidu biren faltan bigarren da. Federazioak konfirmatu arte ez dago jakiterik zenbat talde igongo diran Espainiako Bigarren Mailara, baina Totorikak bi izatea ea segurutzat jotzen dau eta hiru igotea be posible litzatekeela dino. Liderrak izaten saiatuko diran arren, suerte apur bat behar izango dabela

dino, baina bigarren postua "bai ala bai" mantenduko dabela.

**Soberanori omenaldia**

Martiaren 31n, Urbieta zelaian, sailkapenean bigarren eta hirugarren egozarak, Arratia eta Leioako Emakumeak hurrengo hurrengo, esangura handiko partidu jokatu eben; bertan, Soberano futbol taldeari, Arratia nesken futbol taldearen aurrerari omenaldia egin eutsien-eta, taldearen 50. urteurrenean.

Denporaldi bitan jokatu eban Igorreko talde honek eta dana irabazi eban. Mutilen taldeak eukan zor bat pagau ahal izateko sortu eben taldea eta helburua beteta eta kirol emaitza ezin hobek izan arren, hurrengo urtean desegin behar izan zan taldea, inok ez ebalako gura neskak entrenau. Oingo Zuzendaritza Batzordeak jokari hareek omendu gura izan ditu gizaldi erdia betetean.

Arratia eta Leioako jokalaria pasilloa egin eutseen Soberanoko jokari izandakoai eta taldeko kide bakotxari eta orduko entrenatzaileai plaka bana emon eutseen. Partidu 2-0 irabazi eban Arratiak eta ondoren bazkaria euki eben omenduak.

**Diskriminazioaren bide luzea**

Nesken futbolaren bazterketea ez da Soberano taldearen sasoiko kontua, iraganekoa. Atzenengo urteotan konponduten hasitako kontua da eta Totorikak be bizi izan dauana. "Hasikerako urtee-

tan milaka injustizia bizi izan doguz eta askotan sentidu arazoten euskuen sobran gengoala. Hori urteak aurrera egin ahala, aldatuten joan da, batez be atzenengo

zuzendaritza batzordeagaz. Izan be, Asier Etxezarragak eta taldeak konpromiso handia eta benetako interesa daukie Arratia klubeko nesken taldeetan".

**Arratia Futbol Taldea eta omenduak.****HERRI KIROLAK**

# Aitzol Atutxak eta Inhar Urruzunok "5 kirol" Txapelketaren finala jokatu dabe

**Erredakzinoa**

Azolari dimoztarra eta harrijasotzaile ondarrutarra, aprilaren 13an Gatican jokatu proban, sailkatu ziran finalerako. Finala maiatzaren 1ean jokatu da Bilbon.

Txapelketa honetan, azolari batek eta harrijasotzaile batek osotutako lau bikote 5 herri kirolletan neurtuten dira. Azkoran eta harria jasotzeaz gainera, txinga eroaten, ingudea altxatzen eta trontzan be jarduten dabe kirolariak. Txapelketak finalerdi bik eta finalak osotuten dabe. Lehenengo finalerdian, Mikel Larrañaga eta Xabier Peña, Arria V. eta Jokin Eizmendigaz neurtu ziran. Atzenengo honek sailkatu ziran finalerako.

**Atutxa eta Urruzuno**

Aprilaren 13an Gatican izan zan bigarren finalerdia. Izeta III. eta Xabier Zalduaren kontra neurtu ziran eta hasikeratik izan ziran gehiago bizkaitarrak. Bost probak 42 minutu eta 19 segundotan egin ebezan. Euren aurkariak behar izan eben denporea barriz, 46'10" izan zan.

**FUTBOLA**

# Harrobi Futbol Klubak kimuentzako VI. Txapelketea antolatu dau

**Erredakzinoa**

Aprilaren 27an, 10:00etatik aurrera, Arlonagusian, 11-12 urteko 12 talde neurtuko dira Lemoako Harrobi Futbol Klubak antolatutako VI. Txapelketan. Athletic, Real Sociedad, Osasuna, Rayo Vallecano, Alaves, Amorebieta, Zaragoza, Sporting, Antiguoko, Valladolid, Eibar eta Lemoako taldeak ligaxkea, bigarren aukerea, semifinalak eta finala izango dabe txapela lortzeako lehian. Finala 20:00etan jokatu da.

Partiduak 20 minutukoak izango dira eta finalak 12 minutuko zati bi izango ditu. Aurten, nobedade moduan, ligaxkan bigarren eta hirugarren geratzen diranen arteko partidu jokatu da fina-

laurretarako txartela lortzeako.

Rayo Vallecanok txapelketa honetan parte hartzean dauan lehenengo aldia da. Harrobi Futbol Klubak kimu mailako hiru talde ditu eta 2007an jaiotakoak jokatuko dabe txapelketea.

**Harrobi**

Harrobi Futbol Klubak 13 talde ditu, hurrengo kategorietakoak: lau talde eskolakoak, Benjamin kategoriako talde bi, kimu mailako hiru talde, haur mailako bi, kadete mailan bat, gazte mailan beste bat eta nagusietan be talde bat.

**FUTBOLA**

# Azken partiduak

**Erredakzinoa**

Arratia andrazkoen taldeak 2-1 galdu eban aprilaren 13an Zaurutzen kontra. Bigarren postuan dago sailkapenean 28 jardunaldi jokatu ostean. Arratia Bk osterira hiruna bardindu eban ligako atzen partidu aprilaren 14an etxean. 5. postuan amaitu dau ligan Arratia B taldeak 42 puntugaz.

Gizonezkoak osterira, 0-1 galdu eben Aurreraren kontra aprilaren 13an. 29 jardunaldi eta gero sano atzean dago Arratia 24 puntugaz. B taldeak bina bardindu eban jokatu atzen partidu Bakiogaz etetik kanpo. Arratia B bosgarren postuan dago 29 jardunaldien ostean 50 puntugaz.

**LemoaHarrobi**

LemoaHarrobi 0-2 galdu eban Berizen kontra aprilaren 13an. 29 jardunaldi jokatu eta gero Lemoakoak hamabigarren postuan dagoz 39 puntugaz.



## MUSHING

# Europako Mushing Txapelketan egongo da Gaizka Barahona zeberioztarra

### Erredakzioa

Martiaren 9 eta 10ean, Baqueira Bereten (Lleida), Espainiako Edurretako Mushing Txapelketa jokatu zan distantzia erdiko eta sprint kategorietan. Gaizka Barahona zeberioztarrak bigarren postu bat lortu eban sprinteko SP2 kategorian, eta horri esker Europako Txapelketarako txartela lortu dau.

Bost kilometroko lasterketa izan zan. Lehenengo egunean bosgarren egin eban Zeberioako, "pistea ez egoan oso baldintza onetan eta batzuetan bide okerra hartu genduan. Hurrengo egunean, pistea hobeto egoan" eta bigarren egitea lortu eban. Irabazlea Jon Gonzalez izan zan, sailkapen orokorrean 14 segundo gitxiago eginda.

Europako Txapelketa noz eta non izango dan zehaztu barik dago.

### Taldea

Barahonaren trineotik txakur bik egin eben tira, Jazz eta Diück izenekoak, zazpi urte t'erdikoak. Normalean tira egiten daben txakurak bi edo hiru urtekoak izaten dira, baina honeen esperientzia baliagarria izan zan Baqueira Bereten.


Txakurrok ondo janda, ondo hidratauta, arnesak ondo ipinita



eta urtekeran txakurrai eusteko ardura izaten dauanai handler deitzean jako. Handler bi euki ebazan Barahonak Espainiako Txapelketan, Egoitz Balado eta Larraitz Sobron, hain zuzen be. "Larraitz Sobron bera be lasterkari ona da eta lasterketa honetan lagunduten izateko subertea euki neban. Egoitz Balado handler ofizialak, proba baten ostean, hurrengo egunerako txakurak barriro euren onenean egon daitezan ardura dauka. Eurak barik, ezin izango neban Espainiako txapel-dunorde izan" dino Barahonak.

Baqueira Beretera zeberioztar talde "aparta" joan zan Barahona animetan. "Zapatu gauean, dana

itxi eta eurakaz joan nintzan pizza bat jaten. Inoz ez dot holangorik egiten, baina hori egin neban eta gaur Espainiako txapeldunordea naz. Euren energia eta babes bizi-garriak dira niretzat, ezinbestekoak".



askatetasun  
BULKADAK  
INDEPENDENTZIARA!  
GAZTE TOPAGUNEA \*19  
APirilak 19 - 20 - 21 - 22 - LEMOA  
gaztetopagunea.eus

## PELOTEA

# Danel Elezkanok eta Beñat Rezustak irabazi dabe Binakako Txapelketea

Bilboko Bizkaia frontoian jokatu zan finala apirilaren 7an eta Elezkanok II.ak eta Rezustak 22-19 irabazi eutseen Iker Irribarria eta Jose Javier Zabaletari.



Danel Elezkanok eta Beñat Rezustak.

### Erredakzioa

Dimakoa eta bergararra ez ziran txapela lortzeako faboritoak. Partidua estua izan zan eta tantu bakotxa burukatu behar izan eben, hasikeratik aurrean ipini ziran arren. Irribarria eta Zabaletak barriz, bitan lortu eben bardin-dutea, baina inoz ez eben lortu aurrean jartzea. Elezkanok eta Rezustaren lan handiak eta Irribarria eta Zabaletaren huts kopuruak emon eutseen txapela Elezkanok eta Rezustari.

Pelotariaren hurrengo erronka, Banakako txapela lortzea izango da.

### Dimak harrera sutua

Txapela lortu eta inguruan izan dituanakaz gogoratu da Elezkanok. "Ilusino handia egiten deusta txapela lortzeak."

pel honek, batez be inguruko jentegaitik. Eskaini gura deutset momentu txarretan hor egon diranai: familiari, neska-lagunari eta Zarata-moko eta Dimako lagunai" azaldu deutso BEGITURI txapeldunak.

Txapelak jantzita eta kopak eskuan, Elezkanok eta Rezustak Diman ospatu eben garaipena. Finaleko partidua amaitutakoan, dimoztarrak zain egozan herriko plazan, pankarta handi batez, eta pelotari biak agertu ziran txapela lortzearen ondoren. Pankartan "Dimetik inder guztie. Egurre Danel!" irakurri eitekean. Handik aurrera, jaia lehertu zan. Jasotako harreraren gainean be, berba onak baino ez ditu Elezkanok, "oso polita iruditu jatan. Dana primeran pre-pautu egoan eta ederto urten eban. Perfekto!".



Elezkanok eta Rezustak Diman.



## PROIEKTUA

Igorre eta Zeanuriko  
ludotekak parte hartu  
dabe abesti herrikoiak  
bersionetako proiektuan

## Erredakzioa

Bizkaiko Urtxintxa Eskolako Patxintxiketan proiektuak lau euskal abesti herrikoiki bersionau ditu gaur egungo jendarte testuingurura egokitzeko. Proiektuak, 5 abesti landu ditu, 4 bersionautakoak eta bat zerotik sortutakoa. Egokitutako abestiak, *Sorgina kaskarina*, *Zubiri-Zubiri*, *Aizu-Aizu* eta *Urtxintxaren jokua* dira. Ingot taldeak, Uluka taldeak, Aida eta Oier-ek, Itziarren semeak taldeak eta La Basuk hartu dabe parte.

Igorreko ludotekako umeak, Ingot musika taldeak grabautako *Sorgina kaskarina* (*Sorgina pirulinaren* bersinoa) bideoklipetan hartu dabe parte. Bersino barrian, sorginen iruditegi negatiboa apurtu gura dabe Urtxintxakoak eta naturagaz konektutako andra moduan agertzen dira.

Zeanuriko ludotekan barriz, *Patxintxiren jokua* (*Urtxintxaren jokua* bersinoa) abestiaren bideoa grabatu dabe. Oier eta Aidak ipini deutse musikea eta abestian agertzen dan derrigortasuna eta bortizkeriaren inguruko kontzeptuak zalantzan ipini eta horreen orde hainbat aukera proposatzen ditu. Proiektuaren aurkezpena Igorreko Kultur Etxean egin zan apirilaren 5ean.

## Beste kantuak

Itziarren semeak taldeak *Zubiri-Zubiri* abestiaren eraldaketari mu-



sikea ipini deutso. Abesti barriak autoridade ereduak ezabatu ditu eta euren orde laguntasunean oinarritutako mezua ezarri dau. Kantu honetan Bilboko Garcia Rivero eskolako umeak protagonistak izan dira.

Uluka taldeak *Aita*, *Amaren* bersino barriari musikea ipini eta *Aizu-Aizu* izen barria proposatu dau. Abestiko grabazioan Urtxintxakideak izan dira. Atzenik, La Basu abeslariak musika taldeak, Patxintxiren abestia zerotik sortu dau proiektuaren lehen faseari osotasun eta amaiera emoteko. Transmittitutako mezua be landu gura izan diran balioakaz sortu dabe.

## Laguntzaileak

Proiektua hainbat eragileri esker aurrera atera da; batik bat, musika talde guztiak, Igorre, Tertanga eta Zeanuriko Udalak, Garcia Rivero eskolea, Eragintza KE eta Eskuairre KB. Eusko Jaurilaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak diruz lagundu dabe proiektua.

## LEHIAKETE

Lemoako  
eskolearen  
inplikazioa  
ezinbestekoa  
Lemoako Haur  
eta Gazte Ipuin  
Lehiaketan

## Erredakzioa

Aprilaren 4an, Lemoako Haur eta Gazteen XVII. Ipuin Lehiaketako sariak bananduteko ekitaldia izan zan. Edadeen arabera lau taldetako irabazleak eskolarako materiala izan eben sarizat. Ondoren ipuin kontaketa saioa egon zan.

La 200 umek hartu dabe parte Ipuin Lehiaketan eta 103 ipuin aurkeztu ditue. Txikerrenak taldeka egin ditue ipuinok. Eskolearen inplikazio handia izan da; izan be, ia eskola osoak hartu dau parte eta eskolatik kanpoko inork ez dau ipuinik bialdu lehiaketara. Nagusien taldean, DBH 3. eta 4. mailakoen taldean be ez dau inork parte hartu.

## Saridunak

Lehen Hezkuntzan hiru talde egon ziran. Lehenengoan, LHko 1. eta 2. mailakoan, *Animali so-roak* eta bigarrenen, LH3. eta 4. mailako *Errege gaixoa* taldeka egindako ipuinak jaso eben saria. Lehen Hezkuntzako hirugarren taldean, Amaia Milikuaren *Magali Mexikon* izan zan epaimahaiarentzat onena. Bigarren Hezkuntzan, DBHko 1. eta 2. mailako taldean, Uxue Merinok idatzitako *Aurrera beti* narrazioak eroan eban saria.

## ERAKUSKETE

Ramon Serrasen *Irakurlea*  
hondartzan erakusketea IKEn

## Erredakzioa

Aprilaren 15etik, maiatzaren 9ra, Ramon Serras argazkilariak Zarauzko hondartzan ateratako argazkiak egongo dira ikusgai Igorreko Kultur Etxeko Erakusketa Aretoan.

Hondartzan jente askok irakurri egiten dau. Badirudi liburua-hondartza binomia konstantea

dala espazio horren erabiltzaileen artean, beharbada hondartzak sortzean dauan atsedean eta erlajazio sensazioagaitik, edo jente asko biltzean danean isolatzearen. Atsedean eta erlajazio jarkera horreek ondo harrapatu ditu Ramon Serrasen kamarak erakusketa honek biltzean dauzan argazkietan.



## IKASTAROA

Izena emoteko  
epea zabalik  
Igorreko  
argazkigintza  
ikastaroan

## Erredakzioa

Igorreko Udalak antolatuta, apirilaren 30etik bagilaren 25era,

*Argazkigintza* ikastaroa izango da Kultur Etxean. Guztira 9 saio izango dira, martitzenetan, 17:00etatik 19:00etara, Jesus Mari Arruabarrena irakaslearen eskutik. Izena apirilaren 23ra arte emon daiteke Kultur Etxean.



## ONDAREA

Pazko-domekarako  
mokotsa izango da  
Arratiako okindegietan

Aita-amabitiak besoetakoai mokotsa oparitzeko aukerea izango dabe.

## Jon Urutxurtu

Kanporamartxo, etxeramartxo, Martitzen-karnabal, Garizumea eta Aste Santua. Aste Santua Erramu-domekearen eta Pazko-domekearen artean luzatzen da eta bertan Jesusen pasioa, heriotza eta berbikundearen gogoratzen

da; Zapatu Santuko gau-ospakizunean, Jesus berbiztua irudikatzen dauan su barria isiotuten da, Kristok heriotza gainditu dauala adierazoteko. Hurrengo egunean, Pazko-domekan —aurten apirilaren 21ean— eleizkizunak batera oindino ohitura zahar bat erripikatzen da urtero Euskal Herriko

hainbat lekutan: aita-amabitiak euren besoetakoai arrautza bat edo gehiago daroazan ogi berezi bat oparitzean datza. Ogi horrek izen desbardinak hartzean dauz eskualdeen arabera: mokotsa zein morrokotea Arratian, olatea Orozkon, pazkopile Busturian, kaapaxua Bergara aldean, kornitea Santurtzin... Itxureari jagokonez, toki batzuetan biribilak izaten dira eta beste batzuetan triangelu itxurakoak, Arratia aldean gehienbat triangelu itxurakoak.

Arrautzea ugalkortasunaren  
sinboloa

Morrokotea, mokotsa, olatea, pazkopila, kaapaxua, kornitea... Pazko aldiaren oparitzen diran arrautzadun ogi horreen esangurea arakatzekoan, kontuan izan behar da antzinako kultura askotan arrautzea



jaiotzearen, ugalkortasunaren eta berbikundearen sinboloa zala, eta badirudi kristauen artean berbiztu dan Kristo irudikatzen dauala. Argi dagoana zera da: aita-amabitiaren eta besoetakoaren arteko erlazio bat adierazoten dauala, eta bateoagaz be zerikusia euki daikela.

Pazkoetan arrautzea oparitzea munduko hainbat herrialdetan gordetzen dan ohitura da, besteak beste Ingalaterran, Estatu Batuetan eta Erdialdeko Europan.

Katalunia aldean be txokolatzeko arrautzea, mona deritxana, oparitzen deutsee aita-amabitiak besoetakoai.

Nahiz eta oindino bizirik iraun, morrokotea edo mokotsa oparitzeko tradizioaren indarra galtzea beste sasoi batzuetan baserrietan astero egiten zan labe-suaren gainbeheragaz batera gertatu da. Lehenago baserri bakotzak, zapaturo aste osorako ogia egiten eban eta Pazko-domeka bezperan, Zapatu Santu egunean, asteko labe-sua aprobetxauz egiten ziran mokotsak. Gaur egun, baserrietako labe-sua ia-ia iraganeko erlikia bihurtu bada be, badagoz hantzen ohitura zaharri eusten deusien okindegiak, eta Arratia aldean... morrokotea oparitzeko aukerea izaten da, bertako okindegiak salgai izaten dabez eta.



## ZINEKLUBA

### OEE plataformeak aurkeztuko dau pelikulea

#### Erredakzioa

Ongi Etorri Errefuxiatuak Plataformek maiatzaren 5eko Be-sarkadaren kanpainaren barruan, maiatzaren 2an, *La jaula de oro* film mexikarra ekarriko dau Igorrera. Zineklubeko maiatzeko saioa izango da. Beste saioetan ez bezala, 19:30ean hasiko da, ordu erdi lehenago, Ongi Etorri Errefuxiatuak zine sailak aurkezpena egingo daualako.

Diego Quemada-Diez zuzendariaren 2013ko lan honetan, Guatemalatik AEBra doazen migrazioaileen egoera gogorra adierazoten da.

#### Sinopsia

Juan, segurtasunagaitik mutil plantak egiten dauan Sara, eta Samuel, euren jatorrizko Guatemalatik abiatzen dira Estatu Batuetara heltzeko ametsagaz. Guatemalako muga zeharkatu eta, handik gitxira, Chauk, gazte tzotzila alkartuko jakie. Biajean, milaka etorkin mexikar eta ertamerikarrek sufriduten dabezan etenbako arriskuak bizi ditue; eta bildurra, bidebakokeria eta mina, alkartasuna, adiskidetasuna eta maitasunaren bitartez gaindizten ahaleginduko dira.

## ANTZEZLANA

### Xokolat umeentzako antzezlanaren Lasarte Aretoan

#### Erredakzioa

Apirilaren 26an, 17:30ean, Paraiso Antzerki taldeak *Xokolat* antzezlanaren aurkeztuko dau. Biziteko gozamenari, irudimenari eta ikusminari eskainitako kantua da eta *Small Size Performing Arts for Early Years* Europako proiektu barruan dago. Ramon Molins-en zuzendaritzapean, Rosa A. Garcia eta Maitane Goñi izango dira aktore lanetan.

#### Sinopsia

Espazio garbi eta perfektu baten materia bitxi bat sortzean da: txokolate tabletak. Han, errutina eta ordenagaz pozik bizi dan andra bat bizi da. Ezustean etorriko

dan lagun kanporakoi, dibertigarri eta oldarkorak hankaz gora ipiniko dau hasikerako uniberso aseptikoa. Izan be, andra etorri barria aspertu egiten da monotoniagaz, eta beste andreari kutsatzeko ebatzia hartu dau.

Egun baten, personaje biak begiradak kurutzatuko ditue ezohiko gauza bat egiteagaz batera: txokolatea probatzea, dastatzea, gozatzea. Bat-batean, dana aldatuko da. Material gozo hau amets egiteko konbidapen bilakatuko da. Alkarregaz hegan egingo dabe txokolatea esku artean daukiela, usain gozoak mundua beteten daben eta denporea eteten daben bitartean.



Xokolat antzezlanaren.

## MUSIKEA

### Abba Suediako musika taldean oinarritu zan Arratiako Musika Eskolako ipuin musikatua

#### Erredakzioa

Apirilaren 6an, Arratiako Musika Eskolako ikasleak, irakasleen orkestagaz eta hainbat koruren laguntzeagaz, Abba taldean oinarritutako ipuin musikatua eskaini eben Igorreko Lasarte Aretoan.

Saio bi egin ebezan. Lehenengoan, Lemoa, Zeberio, Zeanuri eta Arteako umeak hartu eben parte eta bigarrean Dima, Lemoa, Bedia, Igorre eta Areatzakakoak. "Saio bietan egon zan Kirikinusi Arratiako Musika Eskolako korua, Kantalai korua be etorri zan lagunduten, baita Zornotzako korua be eta aurten Otxandioko herria sartu danez Arratiako Musika Eskola barruan, Otxandioko korua be egon zan" azaldu deuto BEGITURI Garazi Olabarrieta Arratiako Musika Eskolako irakasleak. Orkestea, Musika Eskolako irakasleak osotu eben.

#### Abbaren 14 kantu

Aurtengo ipuin musikaturako Abba taldearen 14 kantu egokitu dira. Moldaketak, Arratiako Musika Eskolako irakasle izandako Jesus Mari Bilbaok, "Jerri"k egin ditu. Saio bakotxean, 4 eta 8 urte



bitarteko 50 umeak egiten dabe ipuina eta koruan beste 40 egoten dira. Koruan nagusiagoak be badagoz.

Danan artean holango ikuskizuna prestatzeko lan handia emoten dau. "Ikasturtea amaitu orduko hasten gara hurrengo ikasturteko ipuinaren gaiari bueltaka. Uda aprobetxetan dogu partitura bilketea egiteko eta urrietan hasten gara behar honegaz buru-belarri. Denpora asko behar izaten da: letrak egin, abestien moldaketak egin, abestiak laburtu... Eta umeai erakutsi behar jakiez kantuek. Talde bakotzak abesti bi egiten ditu. Bata izaten da edo jantza bat edo jantza eta instrumentuen nahaste bat. Bigarrena beti izaten da abestua".

Lan handia baina beti arrakasta handikoa. Saio bietan bete egiten da Lasarte Aretoa.

## DUNBA

### Baleak!

#### Zeberioko Zubialde eskolako 5. eta 6. mailako ikasleak

Zubialde HLHIko 5. eta 6. mailako ikasleak denpora laburrean agertu diran albisteengaitik kezkatuta balearen gaia aukeratu dogu.

Hego Afrikan, Rainer Shimp urpekaria balea batek ahoan sartu eban. Segundu batzuk pasau eban balearen barruan ahotik bota eban arte.

Zergaitik ez eban jan edo hil? Oskoldun txikiak, algak, planktona eta uragaz sartzean jakozan elikagai txikiz elikatzen diralako. Gainera bizardunak dira, ez haginidunak (hortzak dituen zetazeoak ez dira baleak).

Balea mota asko dagoz: balea urdina, euskal balea, balea grisa... Balea urdinak normalean 15-30 metro ditue gitxi gorabehera, eta 150 tona pisatzen dabe.

Narruan ez daukie ulerik, leuna da eta azpian 50cm.ko koipezko geruza bat daukie.

Horri esker -1 eta 30 graduko temperaturatan bizi ahal dira.

5-10 minutu egon ahal dira ur azpian, horretarako 4-10 arnaske-ta inguru egin behar ditue kanpora doazenean.

#### Balearen ehiza

Gaur egun Japonia da balearen okela gehien jaten dauan herrialdea. 1960an japoniarrak 200.000 tona balea konsumiduten eben, gaur egun ordea 5.000 tona. Honen zergaitia hau da, nazinoarteko araudiaren arabera, 1986tik ikerketarako bakarrik dago baimenduta balearen ehiza, baina Japoniak debeku horri aurre egin deutso.

Zorionez Norvegian balea okela konsumoa asko jaitsi da Japonian legez. Balea-ontziak be gitxiago dagoz, 1950ean 350 egozan eta 2017an, barriz, 11. Pasa dan urtean 432 ehizatu ebezan, Oslok dekretuan ipinitako kopuruaren erdia be ez. Hau da 999ren erdia.

#### Euskaldunon balearen ehiza

Euskal arrantzaleen balea-ontzien lehen datua 670. urtean izan zan. Hamar tona koipe eroan ebezan Jaikoren monastegira Sena ibaieren ertzean.

Euskal baleazaleen jarduera nagusia XIV. eta XV. mendeetan luzatu zan eta hortik aurrera desgertzen joan zan.

Hasikeran Bizkaiko golkora joaten ziran euskal balearen bila.

Tekniken hobetzeak ipar itsasora eroan eban, Islandiara, Kanadako Ternuara eta azkenik El Salbadorreko kostaldera. Arrantza-leak baleak ezin ebezanean harra-


patu, narru bilketan eta makailoak arrantzatzen eben.

#### Balea hilak hondartzetan

Askotan agertu dira gure hondartzetan hilak, kutsadurarengaitik.

Zezeilaren hiruan Sopelako hondartzan balea hil bat agertu zan. Balea konkorduna zan 17 metro luze eta 27 tona pisatzen eban. Zauri handiak eban, eta zientzialariak gaixorik egoala uste dabe tripan kutsadura zaborra eukalako.

Hondartzan egoala ikusi ebanean jentea hurreratzan hasi zan eta poliziari deitu eutsien. Poliziak



garabi bat eta traktore bi erabili behar izan eban.

Zezeilaren hogeta bian, Brasileko Marajò irlan balea hil bat agertu zan be. Balea konkorduna zan. Baleak zortzi metro neurtzen eban, kume bat zan eta gitxi gorabehera urte bat eukan. Momentu haretan han egozan turistak, saiak zonalde horretan hegaka ikusi ebezenean, zerbaist gertatu zala jakin eben. Orduan haraino hurreratu ziran eta hondartzatik 15 metrotara zugatz artean balea hila topau eben. Bere amarengandik banandu zalako norabidea galdu ebala uste dabe zientzialariak eta ekaitz olatuen indarrak haraino eroan ebala. Uhartera 10 biologo bidali dabez kasua ikertzera.



## AGENDEA

**APRILAK 16**  
**AREATZA**

Garbigune mobikorra plazan. Goizez. Hilaren 17ra arte.

Urtekerea Valladolidera maiatzaren 4an Valladolid-Athletic partidua ikusteko (maiatzak 5), Gorbeako Gurutzeta Peñak antolatuta. Izena Motxo tabernan emon daiteke apirilaren 17ra arte.

**Valladolid Athletic**  
José María, enfrontak 4 de mayo 19:00  
**Urtekerea maiatzaren 4an izango da.**  
La salida será el sábado día 4.  
Buzkidetik 40 euro.  
Hotela + bihotza + sarrerrea.  
Goizentzakoak gaste guztiak ordaindu behar da.  
Las sedes/as 40 euros.  
Hotel + viaje + entrada.  
Las/as no sedes/as pagaran el viaje integro.

**BEDIA**

16:30etik 19:30era, maiatzaren 4an, Mendexa Park Abentura Familia urtekerarako Bediakoentzako izen emotea. Liburutegian.

**IGORRE**

Udalak antolatutako *Argazkigintza* ikastaroan izena emoteko epea hilaren 23ra arte. Kultur Etxean.

Maiatzaren 9ra arte, Ramon Serrasen *Irakurlea hondartzan* erakusketea Kultur Etxeko Erakusketa Aretoan.

**UBIDE**

Garbigune mobikorra. Hilaren 17ra arte.

**ZEBERIO**

Hilaren 21era arte, Austarri Mendi Taldeak antolatutako Petritegi sagardotegira urtekerarako izena emoteko epea zabalik. Zeberio tabernetan.

17:00etan, Udalak antolatuta, menpekotasuna daukien pertsonen senide zaintzaileentzako Zainduz programearen jarduerak, Josefina Fernandez psikologoaren eskutik udaletxean.

Maiatzaren 4an Untzueta Nafar Gazteluan egingo dan ekitaldian osteko herri bazkarirako tiketak salgai Herriko Tabernan.

**ZEANURI**

Zulaibar Lanbide Ikastegiak, *Fabrikazino mekanikoko produktuen irudikatze grafikoak (3D diseinua)* ikastaroa antolatu dau. Ikastaroa maiatzean izango da. Eskolak, 15:30etik 19:30era izango

dira astelehen, martitzen, eguazten eta eguenetan, maiatzaren 6tik 22ra. Izena, ikastetxearen webgunean edo 94 673 91 16 telefonoan edo [jonzabala@zulaibar.org](mailto:jonzabala@zulaibar.org) helbidean emon daiteke.

**APRILAK 17**  
**LEMOA**

10:00etatik 18:00etara, Udalak antolatuta, Ludotekako urtekerea, Oñatiko Arrikruz kobetara. Lehen Hezkuntzako 3.-6. mailako umeentzat.

**APRILAK 18**  
**ARRATIA**

10:00etatik 14:00etara, mikologia guztiak. 15 euro, 4 urtetik beherako umeentzat doban. Gorbeia Euskadik antolatuta.

**DIMA**

11:30ean, bisitea Antzasti Museoa Euskal Baserrira. Helduak 5 euro; 11 urtetik beherako umeak eta erretiratuak 4 euro; 6 urtetik beherako umeak doban, armozuagaz: helduak 12 euro eta ume eta erretiratuentzat 8 euro. Gorbeia Euskadik antolatuta.

**Eider Eibar ilustratzailea**  
**Bediako Liburutegian**

Apirilaren 23an dan Liburuaren Nazinoarteko Eguna ospatuteko, Eider Eibar ilustratzaileak *Irudikosc* 6 urtetik gorako umeentzako jarduerak bideratuko dau apirilaren 30ean, 18:00etatik aurrera Bediako liburutegian. Gainera, fetxa horren inguruan liburutegira hurreratzen diran guztia, ludotekan umeak sortutako orri banatzaileak bananduko jakiez.

*Irudikosc* saioan, ilustrazio originalak ikusi, zuzenean marrazkiak sortu, alkarlanean irudikatu, marrazkien zergaitiak aztertu eta umeai betiko begiradea aldatzen saiatuko da ilustratzailea.

**Eider Eibar**

Eider Eibar Zugazabeitia (Zornotza, 1980), ilustratzaile ezaguna da batez be Euskal Haur eta Gazte Literaturan egin dauan lanagaitik, baina beste arlo askotan be egin dau behar: animazioan, muralak egiten, diseinuan eta abar. 2015ean *Barrukoa* izeneko album mutua kaleratu eban, publiko helduagoari zuzendua eta lehen aldiz bakarka egindakoa; ilustrazioak baino ez dituan liburua da.

**Liburutegia kultur topagunea**

Bediako Liburutegia ez da bakarrik liburuak maileguan ixteko zerbitzua. Bertan, egiten dira Udalak antolatutako ekintza kultural gehienak; topalekua da eta edade desbardineta jentea batzean da bertan. "Liburutegiaren barruan bebeteka dagoenez, txiki-txikitatik umeak gurasoak aukerea daukie liburuakaz ibilteko. Horrezaz aparte, Umeen Irakurle Kluba daukagu, urtean lau saio egiten dira, dinamizatzailea Julen Gabiria da, gure herriko aditu eta idazlea. Irakurketa bultzatzen da eta horregaz batera gai desbardinak landuten dira. Bederatzi neska dagoz, sano parte-hartzaile onak, 8 eta 12 urte bitartekoak" dino Raket Godoy liburuzainak. Onditx Mendizabalen eskutik, Liburu-Maleta ibiltariak be beste lau saio izaten ditu urtean.

Nagusiak dira liburu mailegu zerbitzua gehien erabilten dabena. "Urtean hiruzpalau aldiz erosten doguz nobedadeak eta irakurle mota guztietara heltzean saiatzen gara".

**APRILAK 19**  
**LEMOA**

Gazte Topagunea. Ernai eta Aitzina gazte erakundeak antolatuta. Ikusi programazioa 7. orrialdean.

**APRILAK 20**  
**LEMOA**

09:00etatik, Gazte Topagunea.

**APRILAK 21**  
**LEMOA**

09:00etatik, Gazte Topagunea.

**ZEBERIO**

11:00etatik 12:30era, Zeberioko altxorak: bisita gidatua. Euro bi, 12 urtetik beherako umeentzat doban. Gorbeia Euskadik antolatuta.

**APRILAK 22**  
**LEMOA**

Gazte Topagunea.

**ZEANURI**

11:00etan, artzain egun batez: Ipiñaburu gaztaitegian. Euro bi, 3 urtetik beherako umeentzat doban. Gorbeia Euskadik antolatuta.

**APRILAK 23**  
**ARANTZAZU**

Garbigune mobikorra. Hilaren 26ra arte.

**ARTEA**

Garbigune mobikorra. Hilaren 26ra arte.

**LEMOA**

10:00etatik 14:00etara, Udalak antolatuta, Baso ludotekea, HH3-LH2ko umeentzat. Izena emon behar da.

**APRILAK 24**  
**LEMOA**

10:00etatik 14:00etara, Udalak antolatuta, Baso ludotekea, HH3-LH2ko umeentzat. Izena emon behar da.

**APRILAK 25**  
**ARTEA**

Jubiladu alkarteak antolatuta, urtekerea Llanesera.

**LEMOA**

10:00etatik 16:00etara, Udalak antolatuta, Ludotekako urtekerea Urkiolara, HH3-LH2ko umeentzat.

**APRILAK 26**  
**IGORRE**

17:30ean, Paraiso antzerki taldearen, *Xokolat* umeentzako antzezlan Lasarte Aretoan.

19:30ean, azkenengo barikuetako presoen eskubideen aldeko konzentrazioa; 20:30ean, Azken bariku dantza Axular Herriko Tabernan.

**LEMOA**

10:00etatik 14:00etara, Udalak antolatuta, Baso ludotekea, HH3-LH2ko umeentzat. Izena emon behar da.

**APRILAK 27**  
**ARANTZAZU**

Arginatx Mendi Taldeak antolatuta, Txindokira urtekerea.



10:00etatik 13:00etara, Arratiako Andren Jabekuntza Eskolako *Mendiko orientazio* tailerra Kultur Gunean.

**LEMOA**

10:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 20:30era, VI. Harrobi Txapelketea. Finala, 20:00etan. Arlonagusian.

**DIMA**

16:00etan, Bola Joko Txapelketako saioa Obako bolalekuan.

**IGORRE**

17:00etan eta 20:00etan, zinea *Capitana Marvel* Lasarte Aretoan.

**ZEANURI**

09:30ean, plazan. Mendi ibilaldia. Plazea-Egilleor-San Justo-San Lontzo-Zulaibar. Hamaiketako San Lontzon. Gorbeia Jubilatuen eta Pentsionisten Alkartea.

**APRILAK 28**  
**ARANTZAZU**

09:00etan, Arratiako Andren Jabekuntza Eskolako *Mendiko orientazio* tailerra, egun pasa mendian.

**AREATZA**

Gorbeia Parke Naturalak antolatuta, kosmetika naturala lantzeko tailerra, Lavandula alkartearen laguntzaz. Jaboiak eta kremak egiteko aukerea. Izena emon [gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus](mailto:gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus) helbidean edo 94 673 92 79 Parkeko telefonoan.

**LEMOA**

09:30ean, Lemoako Txirindulari Elkarteak antolatutako bizikleta urtekerea Arlonagusiako kantxatik.

**APRILAK 29**  
**DIMA**

Garbigune mobikorra. Maiatzaren 3ra arte.

**IGORRE**

Garbigune mobikorra. Maiatzaren 3ra arte.

**APRILAK 30**  
**IGORRE**

17:00etan, Udalak antolatutako *Argazkigintza* ikastaroa hasten da.

**MAIATZAK 2**  
**IGORRE**

18:30ean, pasta tailerra Axular Herriko Tabernan.

19:30ean, zinekluba *La jaula de oro* Lasarte Aretoan.



# AKIKMIKO

I  
m  
a  
n  
O  
l  
a  
t  
u



## IRAGARKI LABURRAK

### SALDU

#### BASERRIA SALGAI

Baseri barriztua saltzean da Areatzan. 210 m<sup>2</sup>, 3 solairutan bananduak. 4 logela, komun bi. Terrenoa etxe inguruan. Herritik oso hur. 685 717 504 (Garazi).

#### BIZITZA BIKO ETXEA SALGAI

Bizitza biko etxea saltzean dot Diman, plaza ondoan. 210 m<sup>2</sup> ditu, hiru solairutan bananduta, lursaila etxe inguruan eta atzean. 635 737 879 (Aiora).

#### MOTORRA SALGAI

125 ccko motorra salgai. Kymco Agility City. Prezio onean. Interesdunak 699 615 008 telefonora deitu.

### DANERIK

#### TRIKITIXEA EROSTEN DOT

Bigarren eskuko trikitixea erosten dot, Sol noanoan balego hobe. Interesdunak 657 707 725 telefonora deitu.

#### ETXE BILA

Areatzan pisu/etxe bila gabilzan familia

gara. Alokatzeko zein erosteko prest. Herrigunetik hur egotea gustauko litxakigu. Interesdunak 653 745 838 telefonora deitu.

#### ORTU BILA

Lur zati baten bila gabiz Igorren ortu txiki bat eta animalia batzuk ipinteko asmoagaz. Interesdunak 660 638 324 telefonora deitu.

**Zezer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)-era. Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

### Zenbaki honetako saridunak:

**1** Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Capitana Marvel* filmarako.

Jon Bengoetxea (Igorre)  
Iosu Murgia (Artea)



**2** Lemoako Gazte Topagunerako bono bana.

Saioa Larrea (Areatza)  
Nekane Intxaurtza (Dima)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 17 urte eta ehundaka lagun.

94 631 73 14 | [www.begitu.org](http://www.begitu.org) | [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

umean medu  
**sem**  
e-16  
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE  
Tfnoa: 94 631 92 96 • [semedu@hotmail.com](mailto:semedu@hotmail.com)

*Kepa Intxausti*  
TAXI ZERRITZUA  
609421222  
IGORRE

*Orre*  
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA  
L. Agirre, 2  
48140 Igorre (Bizkaia) Tfnoa: 94 673 64 25

**begitu**  
anaitza atxiki onerako

Igorren  
**ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana  
Lehendakari Agirre 23, behea  
[aitzol@coavn.org](mailto:aitzol@coavn.org) - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.  
Angel Larrea  
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

**KIRRU**  
ILEAPAINDEGIA  
ROSANA eta ROBER  
SABINO ARANA 38  
IGORRE  
Tlf. 94 631 92 00

**Beer & Edariak s.l.**  
HEINEKEN SOLARES  
Polig. Mendaketa, s/n 48530 LEMOIA, Bizkaia  
Tel: 609 482 530 • 609 206 717

**ZUZENBIDE**  
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK  
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA  
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...  
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96  
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

**BIXER**  
TABERNA  
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO


Jose Luis Corbacho  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3. 3a  
Igorre 48140 Bizkaia  
Tf: 94-673-70-87  
Tf: 609-79-49-54

**AKESOLO, S.A.**  
GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK  
Gara, 29 Telefonoa: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAIA

*Pinturas Aratia*  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992

**NAIARA** Horts Klinika  
Lehendakari Agirre, 19  
48140 Igorre  
94 631 52 26





Zeanuriko Suzien Mendi Kluba.



Zeanuriko EH Bildu.



Zeanuriko Sortu.



Zeanuriko Laratzue eta Eguzkiola alkarteak.



Zeanuriko eskolea eta Guraso Elkartea.



Zeanuriko Udala.



Arratiako Bertso Eskolea.



Igorreko Kiñu Gaztetxea.



Marimendi.



Arantza Hotela.



Arratiako AEK.



Bediako Udala.



Arratikoko Zekorrek AVIA Errugbi Taldea.



Ekin Eraiketak.



Lekittoko Deabruak Antzerki Taldea.



Ubideko herria.



Ubideko herria.